



Musika klasikoaz gozatuz.- Ostiralean XI. Musika Topaketek Manuel Lekuonako aretoa musika klasikoaz bete zuten. Musikene Euskal Herriko goi-mailako ikastegiko ikasleek osatutako bi talde izan ziren gurean. Verushka hirukoak eman zion hasiera kontzertuari. Aram Khathaturiamek pianorako, biolinerako eta klarinete-rako hirukotearen notak izan ziren lehenak. Honetan klarinete eta biolinen arteko elkarrizketa izan zen nagusi. Jarraian, Stravinskyren "Soldadu baten istorioa" obraren moldaketa eskaini zuten. Lan hau Stravinskyren lagun baten antzerki lan batean oinarritzen da eta gaztea batek deabruarekin egiten duen zina du oinarri. Istoria hau musikaren bitartez erakarri zuen hirukoak Manuel Lekuonara. Bigarren zatian, Dana ari laukoteak Antolin Dvorak-ek 'Americano' lana eskaini zuen. Dvorak-ek Amerikako Estatu Batuetan zegoela idatzitako lan honek ezaugarri berezi bat du, eskala pentatonikoan idatzia dago. AEB-tako beltz espiritualen kutsuak ere aurki daitezke laneko mugimendu batean. Ederki gozatu zuten Manuel Lekuonara hurbildu ziren herritarrek eta txalo zaparrada batez eskertu zuten bi taldeen lana.

5 KULTURA

Antzerki Topaketa arrakastatsuak

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak I. Antzerki Topaketa antolatu zuen larunbatean. Goizean antzerki tailerra eta arratsaldean haur eta helduei zuzendutako hainbat emanaldi izan ziren Manuel Lekuonan eta lau tabernatan. Herritarrek tabernak bete eta saioez ederki gozatu zuten. Martxoaren 27an izango den antzerkiaren eguna ezagutzera eman eta ospatzeko ekimena izan zen.



Apirilaren 4ra arte ez da TXINTXARRI-rik argitaratuko. Jarraitu herriko berriak txintxarri.eus orrialdean eta sare sozialetan

ORDU ALDAKETA



Larunbatetik igandera ordu aldaketa izango da: goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira.

zerbitzu mistoak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

- Makillajea
- Manikura eta pedikura
- Era ezberdinetako depilazioak
- Befileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

CHURRUC
formación

Aita Larroka kalea 7 behea
Gros auzoa, Donostia
Tel. 943 42 40 44 - 636 555 265
www.churrucaformacion.com

- FORMAKUNTZA ESPEZIALIZATUA -

OPOSAKETA ETA POLTSAK OSATZEKO EPEAK ZABALIK

Udaltzaingoa, Ertzaintza, Suhiltzaile, Justizia, Administarratza, Correos, Osasungintza (Aragoi)

Praktikak Gipuzkoan
egiteko

eskaintza zabala heziketa kualifikatuan

EUSKARA

2016a, Euskararen urtea Lasarte-Orian

Euskalgintzako hainbat erakundeek haien urteurrenak ospatuko dituzte aurten

2016 urtea euskalgintzarekin zer ikusia duten hainbat erakunde edo talderen urteurren urtea dugu. Landaberri ikastola, Udal euskaltegia eta Muntteri AEK edo Ttakun Kultur elkarteak, besteak beste, dira horietako batzuk. Urtarrilaren 26an, hauek guztiak eta beste eragile batzuk Udaleko Euskara Zerbitzuarekin bildu ziren guztiok batera 2016 urteari forma emateko.

Landaberri ikastolaren 50. urteurrena, Muntteri AEK euskaltegiaren urteurrena, Udal euskaltegiaren 30. urteurrena, Euskararen Maratoiaren 30. urteurrena, Ttakun kultur elkartearen 25. urteurrena, Bertso eskolaren 25. urteurrena, Xumelaren 10. urteurrena... gure hizkuntzarekin eta honen garapenarekin lotura estua duten urteurren ugari ditugu aurten. Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak bultzatuta hainbat eragileekin batera egin zen urtarrila amaieran.

Honetan, Lasarte-Oriako euskalgintzak 50. urteurrena elkarrekin ospatzea merezi zuela eta horretarako gune aproposena Euskararen IX. Maratoia dela adostu zen.

Ttakun eta Udala dagoeneko lanean hasi dira lau urtean behin egiten den euskararen festa handia prestatzen. Lehen pausoak ematen ari dira data zehaztu, leloa eta irudia aukeratu... ez digute ezer zehaztu nahi izan, baina zerbait ziurra dute ezusteko ugari egongo direla.

Beste egitarauak

Bileraren ostean, erakundeen esku geratzen zen haien kabuz urteurrenak ospatu ahal izatea. Gauzak honela, Ttakun Kultur elkarteak, Bertso eskolak, Landaberri ikastolak eta Xumela koruak egitarau berezia egingo dute haien urteurrenak kalera ateratzeko.

Batzuk dagoeneko ospakizunekin hasiak dira. Xumela



Bilera hasi baino lehen, urteurrena ospatzen duten talde eta bestelako eragileek argazkia atera zuten Maratoiko ikurrarekin.

koruak 2015-2016 ikasturtean zehar ari da ekintza ezberdinak burutzen. 'Koka- Kola eta barea' antzerki musikala, Errigorako lagunei Ablitsera bisita edo 'Ez gara Palestinaz ari' bertso emaldi berezia... izan dira oraingoz.

Ttakun Kultur elkarteak apirila amaieran hasi eta urte amaiera artea luzatuko ditu bere 25. urteurrenako ekintzak. Euskara eta herriko euskalgintzarekin zer

ikusia duten hitzaldiak, erakusketak, mahai inguruak... antolatuko ditu elkarteak.

Bertso eskolako kideek lau ekintzako egitaraua antolatu dute apirilean 21etik 24ra.

Horien artean, Lasarte-Oria eta Gabiriaren arteko Bertsotruk desafioa edo bertso eskolako kide eta kide-ohien bazkaria dago.

Landaberri ikastolako lagunerekin ere urrezko urtemuga anto-

latzeko batzorde berezia egin dute. Herritarren proposamenak bildu dituzte eta egitaraua lantzen ari dira.

Transmisioa

Honetaz gain, Euskara Batzordeak aipatu duenez, urte berezi honen helburuetako bat ere euskararen egoerari eta honen etorkizunari buruzko hausnarketa bidera dezakeen tresna sortzea izango da.

Ttakunek Iñigo de Loyolako proiektua aurkeztu du



Lokala barrutik ikusteko aukera izan zuten bertaratutako bazkideek.

Ttakun kultur elkarteak Iñigo de Loyolan duen lokalerako asmoak azaldu zituen bertaratutako 40 bazkide ingururen aurrean. Hiru helburu nagusi identifikatu zituzten lokalari begira. "Euskaldunentzako amasgune" izan nahi du, hasteko. Hau da, Ttakuneko bazkide eta herriko euskaltzaleentzako txokoa.

Kultur elkarteak urtean zehar egiten dituen ekintza asko aurrera eraman ahal izateko espazio egoki baten faltan ikusten direla azaldu zuten. Horregatik, hainbat jarduera bertan egingo dituzte, eta egitasmo berriak planteatzeko aukera zabalduko luke.

Azkenik, "euskal komunita-


tea pertsonaz osatua egoteaz gain, komunitate, elkarte eta horien arteko sare" osatzen dela nabarmendu zuten. Iñigo de Loyolako lokala sare horren aktibazioarako tresna egokia izan litekeela uste dute.

Adierazi zuten, bazkide orok izango du bertan egoteko aukera eta, horregatik, giltza emango zaie. Bi zati berezi dituzte lokalean. Lehena denek erabili ahal izango dute. Bigarrena, aldiz, sukaldeaz hornitu dute eta beste kuota bat ordaindu beharko dute erabili nahiez gero.

Apiriletik aurrera, bilera gehiago egingo dituzte kuotak zehazteko eta bazkide kanpaina finkatzeko besteak beste.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

AHAL DUGU



Lasarte-Oriak Ahal Du-ko Arkaitz Naya eta Orain Hernaniko Jaione Aristegi.

AHAL DUGU

Kontu irekien aldeko eskaera egin du Ahal Duguk

Lasarte-Oriak Ahal Du-k eta Orain Hernanik proposamen bateratua aurkeztu dute

Kontu irekien eta banka etikoaren alde agertu dira Lasarte-Oriako eta Hernaniko Ahal Dugu-ren plataformak. Ordenantza berria aurkeztuko dute bi Udalen aurrean; "gardentasuna irabazteko" eta "populazioaren interes orokorren zerbitzura" dagoen jarduera finantziora ezartzeko helburuarekin.

TXINTXARRI

Alderazpen bateratua egin zuten pasa den astean Lasarte-Oriako eta Hernaniko Ahal Dugu-ren plataformetako ordezkariak. Udalen kontuak herritar guztientzat eskuragarri egotea eskatu dute Arkaitz Nayak eta Jaione Aristegik.

Ordenantza berria

Azaldutako asmoak arautze bidean ordenantza berria aurkeztuko dute bi Udaletan.

"Aurrekontu, hitzarmen, subentzio eta gastu administratibo guztiak" ikusgarri egotea aldarrikatu dute.

Halaber, "modu sinplean" aurkeztu beharko lirateke Ahal Duguren ustez, "saretik jaisteko, berrerauzteko edota norbaiti bidaltzeko" moduan.

Gardentasuna irabazte bidean eta ustelkeriaren aurkako borrokan kokatu dute proposamena.

Banka etikoaren alde

Salatu dute banku tradizionalak "sistema espekulatuzailea" sustatu izana, eta hemendik aurrera erabiliko diren forma eta tresnetan "aldaketa ezinbestekoa" dela nabarmendu dute.

Hori dela eta, banka etikoaren aldeko apustua egin

nahi du Ahal Duguk. "Herri-taren interes orokorrei" mesede egingo dien finantza jarduera mantentzeko.

Borondate kontua

Aurkeztutako proposamenak betetzeko "errazak" direla azaldu dute Nayak eta Aristegik. Izan ere, "borondate politikoa" besterik ez da behar, haien ustez.

Nabarmendu dutenez, sistemaren garapena doakoa da, eta ez litzateke kontratazio berririk egin beharko. Gainera, erabili beharreko software-a jadanik "Udalen eskuetan" dela adierazi dute.

Gipuzkoako Ahal Duguk Foru Aldundian antzeko ekimena aurkeztuko du. Halaber, Arrasateko, Ordiziko eta Pasaiko zinegotziek ere ordenantza hau landuko dute euren Udaletan.

TTAKUN

'Amalur' ikuskizunerako sarrerek badute jabea

Ttakun Kultur Elkartek apirilaren 16an antolatutako Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amalur' ikuskizuna ikusteko sarrerek zozketatu ditu bazkideen artean. Zortekoak Ana Mari Aguirre Beldarrain eta Pili Bermejo Dominguez izan dira.

Ttakun-ek eskerrak ematen dizkie Irakurle Txoko eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei sarrerak ekimen honetarako emateagatik.

Baina hau ez da urteko zozketa bakarra izango, herrian euskaraz antolatzen diren ekitaldietako sarrerak bazkideen artean banatzeko asmoa du elkarteak. Ekimen honen bitartez, Ttakun Kultur elkarteak bazkideei haien fideltasuna eskertu nahi die.

MANTTANGORRI

Hiribusaren erabilerak gora egin du

Lasarte-Oriako Udala pozik eta itxaropentsu dago hiribusaren erabilerarekin, bere funtzionamenduko hirugarren urtean 33.160 bidaiari garraiatu baitzituen, erabilerak %16 gehituz. Laugarren urteko datuek ere igoera egongo dela iragartzen dutela aipatu du Udalak.

Udalak eskaintako datuen arabera, Manttangorri zerbitzuaren lehen urtean 24.986 erabiltzaile izan ziren eta bigarren urtean 28.563 erabiltzailerak izan ziren kopurua; hau da, 3.577 erabiltzaile gehiago izan ziren. Erabilerak %14a igoz. Hirugarren urtean, berriz, 33.160 izan dira erabiltzaileak. Aurreko urteko kopurua %16 igo da 4.597 erabiltzaile berriekin.

Eta aurreratu duenez, laugarren urteko datuek goranzko joera dute. Honetan Mugi txartelaren sisteman sartzea zer ikusia izan dezakeela adierazten du Udalak, "izan ere, 2015eko urtarilean batez bestekoa egunean 144 lagunekoak izan bazen, 2016ko urtarilean 161ekoak izan da, iazko denbora-birtarte berean baino % 12 gehiago".

Udalaren ustetan, datu hauek erakusten du zerbitzuak gero eta arrakasta handiagoa duela lasarteoriarren artean.



GURASOLANDIA

Apirileko hitzorduak

Gurasolandia egitasmoan parte hartzen duten gurasoek hitzordua dute Aste Santu eta Pazko Astearen ostean, zehazki, apirilaren 5ean.

Gurasolandia egitasmoa antolatzen duten kideek aipatu digutenez, oporretako estresa kentzeko masaje saioa izango da.

Bestalde, apirilaren 26an beste ekintza bat egongo dela ere aurreratu dute. Honetan, sentimendu bat landuko da, beldurra.

Apirilaren 1a arte egongo da irekita herriko squash txapelketan izena emateko epea

Udaleko Kirol zerbitzuak 28. aldiz antolatu du Lasarte-Oriako Squash txapelketa soziala. Bertan parte hartzeko interesa duten pertsonak eman dezakete jada izena, apirilaren 1a arte, Udala Kiroldegiko kafe-tegian. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Buruntzaldeako kirol instalazioetako bazkide direnek hamar euro ordaindu beharko dituzte, txapelketan jokatu nahi badute.

Parte hartzaileak apirilaren 7an hasiko dira erraketak astintzen. Bi egun lehenago, asteartez, bilera ireki bat egingo du Udaleko Kirol zerbitzuak, kirol

ekitaldiaren nondik-norakoak azaltzeko: jokalariek batzar horretan parte hartzera gonbidatu dituzte. Udala Kiroldegian elkartuko dira, 19:00etan.

Iñaki Garcia garaile izaz

Pasa den urteko edizioa Iñaki Garcia irabazi zuen. Lehiatua izan zen oso Kinin Calvoren kontra jokatu zuen finala. 15-13, 15-10, eta 16-17ko emaitzak luzapena ekarri zuen, eta, azkenean, 17-16ko emaitzarekin saria Iñaki Garciaentzat izan zen. Ikusteke dago aurtengoan nor irabaziko duen txapelketa.



Pasa den urteko edizioko finalistek argazkia atera zuten denek elkarrekin, txapelketa amaitu eta berehala.

Froilan Elespe gogoan 15. urteurrenean

Elesperen familiak Gesto por la paz elkarteari eman dio aurtengo Froilan Elespe saria

Atzo ETAK Froilan Elespe PSE-EEko zinegotzia hil zueneko 15. urteurrena bete zen. Larunbatean alderdikide eta senideek gogora ekarri zuten herriko zinegotzia urteurren berezi honetan. Lore sorta jarri zuten Elesperen hilobian eta herriko alderdikide eta familiak bere izenean eskaintako saria banatu zuten.

TXINTXARRI

Ilarraltzuetako hilerrian Froilan Elespe zinegotziaren hilobiaren inguruan bildu ziren larunbatean Gipuzkoa eta Lasarte-Oriako PSE-EEko kideak, senideak eta lagunak.

Atzo ETAK Froilan Elespe herriko taberna batean hil zuenaren 15. urteurrena betetzen zen eta larunbatean bere gertukoek zinegotziak Lasarte-Oria herriaren alde egin zuen lana ekarri zuten gogora.

Gipuzkoako eta Lasarte-Oriako alderdi kideen izenean bere hilobian lore sorta bana utzi ostean, Iñaki Arriolak Gipuzkoako Idazkari orokorrak hartu zuen hitza.

Arriolak Elespek besteen zerbitzura lan egin zuela eta alderdikideentzat adibide dela azpimarratu zuen, "bereak zituen baloreak defendatzen ditugu, gertutasuna eta elkar ulertzea".

Honetaz gain, Lasarte-Orian PSE-EEK berriro ere alkatetza lortu izana Elesperi poza emango ziola adierazi zuen.



Gipuzkoako eta Lasarte-Oriako PSE-EEko kideek lore sorta bana jarri zuten hilobian,

Ekitaldiari amaiera emateko 'Internazionala' abestu zuten guztiak.

Gesto por la Paz

Hilerritik jaitsi eta PSE-EEren

egoitzara hurbildu ziren guztiak.

Bertan laugarren urtez, Froilan Elespe saria eskaini zuten herriko PSE-EEko kide eta Elesperen familiak.

Aurten Euskadiko Gesto por la Paz elkarteari egokitu zaio saria. Jesus Zaballos alkateak aipatu zuenez, familia berak proposatutako saria da.

Alkateak azpimarratu moduan, terrorismoaren aurkako mugimenduan izan zuten garrantzia eta gure herrian bakearen eta elkarbizitzaren alde egin duten lanarengatik eman zaie sari hau.

Tomasi Pelazek Froilanen alargunaren eskutik hartu zuten saria eta elkartearen izenean Isabel Urkijo eta Fabiano Laespadak hitz egin zuten.

Urkijok eskerrak eman eta saria jasotzearen arrazoia azaldu zuen. Izan ere, Gesto por la Paz taldeak horrelako aitormenak jasotzeari uko egin baitzion.

"Bakezaleak gara eta ez dugu ezer merezi, baina urte hauetan gure lanari zentzua ematen zioten pertsonak ezagutu ditugu. Horregatik saria eskaintzen duen familiari omenaldi gisa hartzen dugu sari hau. Oroigarri hau bumeran baketsu bat da. Saria eskaintzean eman diguzuen maitasuna Lasarte-Oriara bueltatzen da". Era honetara, Elespe familiari eskaini zion saria elkarteak.

Fabiano Laespadak gogora ekarri zuen, iraganean gertatutako ezin dela ahaztu eta terrorismoak hildako herritarrek denon gogoan daudela.



Gesto por la Paz elkarteko kideak izan dira aurtengo saria jasotzen, baina familiari bueltatu zioten omenaldia maitasun handiz,

50 urte irakaskuntzan

Landaberri ikastolako irakasle izan da Maria Dolores Iturbe 50 urtetan.

Omenaldi hunkigarria egin zioten ostiral goizean Landaberri-Garaikoetxeako lankide eta ikasleek.

Sorpresa atsegina hartu zuen Maria Doloresek jolastokia hurrez jositik zuzenean. Dantzari batek aureskua dantzatu zion, urte askotan lankide izan zuen Jon Lasaren musikaz lagunduta.

Argazki zahar eta berriez osatutako albuma oparitu zioten oroigarri gisa. Azaldu duenez, askotan berrikusiko du, "ilusio handia" egin baitio.

Haur hezkuntzan mende erdia igaro ostean, "zaila" egingo zaio irakaskuntzatik aparte geratzea. Hala ere, aitortu du "jaialdi eta ospa-

kizunetan laguntzeko prest" dagoela. Esaterako, urte askotan bera izan da haurren tamborradako zuzendari.

Ibilbide luzea

Andre Joakina Enean bizi zen eta 14 urtekin hasi zen laguntzaile, ikastolaren sorrerarekin batera. Hiru urte beranduago eman zioten bere lehenengo taldea.

Ordutik gaur arte Landaberri ikastolak eman dituen urrats guztiak ezagutu ditu. Eskola 'berrietan', Uistin baserrian, egungo Hipodromo ondoko eraikinean edota Garaikoetxean aritu da, besteak beste.

Ikastolako bere garaiko irakasle asko bezala titulu gabe hasi zen lanean. Bergarako UNED-era joaten ziren



Maria Dolores Iturbe Garaikoetxean lankide eta ikasleek egin zioten omenaldian.

ostiraletan magisteritza ikastera.

Belaunaldi askoren irakasle

Talde asko izan ditu bere gain Iturbek. Gogoan duenez, "hasieran ugariagoak ziren". Bere lehenengo gelak, esaterako, 38 ikasle zituen.

60ko hamarkadatik gaur arte, Landaberri ikastolatik pasatutako belaunaldi lasarteoriar guztiak ezagutu ditu. Guraso eta seme-alaba ugari-aren andereño izatea ere egokitu zaio.

Landaberri 50. urteurrena ospatuko du 2016 honetan,

eta Maria Dolores Iturbe antolakuntza lanetan dabil. Izan ere, ikastolaren ibilbide osoa bizi izan du. Orain, berriz, atsedean hartuko du, nahiz eta seguru aski behin baino gehiagotan gerturatuko den Garaikoetxeare, lankide eta ikasle ohiak agurtzera.

TXEMA VALLES



Naturaren legeak, elkar banatzea... balore ezberdinak ikasi ahal izan zituzten haurrek 'Kondaira baten truke' antzerkiari esker.

Antzerkirako zaletasuna bultzatuz

I. Antzerki Topaketak harrera ona izan zuen

Lasarte-Oriako Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak martxoaren 27an den antzerki eguneko ospakizunak larunbatera aurreratu zituen. Haur eta helduek egun osoan antzerkiaren gozatzeko aukera izan zuten eskolak antolatutako I. Antzerki Topaketei esker. Antzerki tailerra eta hainbat emanaldi izan ziren herrian.

TXINTXARRI

Klowna, ipuinetako edo zirkuko pertsonaiak, itsua, raperoa, animalia... antzezleak milaka aurpegi izan ditzake eta milaka abentura bizi ditzake. Honi esker, ikusleak ere "bizitza" hauetaz guztiez gozatzeko aukera du. Martxoaren 27an antzerki eguna ospatuko da munduan zehar, Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako lagunek aurten egun berezi hori herrian ezagutzera eman nahi dute. Horretarako, egun batzuk aurreratu larunbatean egun osoko jaia eta antzerki egitarau zabala izan zen herrian. Harrera ederra izan zuen ekimena eta herrian

antzerki zale harrobia dagoela argi geratu zen.

Tailerra

Sasoeta ikastetxeko gimnasioan hasi zen Topaketa.

Bertan haur eta helduek antzerki lotsa alde batera utzi eta tailerraz gozatu zuten.

Lau talde ezberdinetan banatuta, joko edo mimika bidez, pertsonaia ezberdinak izateko aukera izan zuten eta hainbat abentura bizi zituzten.

Antzerki maratonia

Antzerkiaren gozatzeko aukera ere izan zen larunbatean. Lehenak haurrak izan ziren.

Patata tropikal antzerki taldearen eskutik, 'Kondaira

baten truke' antzerkia ikusi zuten Manuel Lekuona kultur etxean.

Haurrek adi jarraitu zituzten naturaren legeak, elkar banatzearen garrantzia eta errespetua jorrazten dituen antzerki koloretsua.

Ostean, helduen txanda iritsi zen, antzerki maratoniaren eskutik. Hala ere, haur eta gaztetxoak ere animatu ziren eta tabernaz taberna ibili ziren. Batetik bestera gainera Ttirriki Ttarraka eskolako lagunen laguntza izan zuten eta erdialdeko kaleak ere girotu zituzten.

Abenden, Andoaingo Katramila antzerki taldearen eta Kukuka antzerki eta dantza eskolaren emanaldia izan zen; Furia Beltza, Telmo eta Haritzen bikarriketa entzun ahal izan zen; Elurtzan, Amaia Irazabalen 'Eltxoak' lana ikusi zen eta azkenik Jalgin Bea Egizabal herritarrek 'Baibo' ipuin saioa eta Anduriña eta Txefok 'Flamenkito' antzerkia eskaini zuten.



Goizean, antzerki tailerra izan zen eta ederki pasa zuten haur, zein helduek.



Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako taldeak eman zion hasiera antzerki maratoniari.



Katramila taldeak eroetxeko lau lagunen istorioa eraman zuten Abend-era.



Telmo eta Haritzen bikarriketek algarak sortu zituzten ikusleen artean. Amaia Irazabalen 'Eltxoak' lanak barrea eta ezinegona eragin zien ikusleei. Bea Egizabal herritarrek berriz, Baibo jainkosaren istorioa kontatu zuten.

MENDI LASTERKETAK.-

Mendian gora eta behera, 24 orduz

155 kilometroko 'La Sierra del Bandolero' ultratraila egin du Gorka Mateo herritarrak, Cadizen

Itxi begiak segundo batzuez eta imajinatu zenbat gauza egin daitezkeen 24 ordutan. Ariketa hori egitea Gorka Mateo herritarrari eskatuko bagenio, erantzuna honakoa litzateke: mendi maratoni bat egitea. Egun oso bat eta 44 minutu gehiago behar izan zituen Cadizeko 'La Sierra del Bandolero' 155 kilometroko ultratraila osatzeko. Mendian lasterka egitea "adiktiboa" dela dio.

IÑIGO GONZALEZ

Korrikalari arrunta, popularra" dela dio Gorka Mateok. Egun oso bat irautera iritsi daitezkeen mendi maratoniak egiten dituen lasterkaria. Martxoaren 4an, ostiralez ekin zion Cadizeko 'La Sierra del Bandolero' ultratrailari Mateok, arratsaldeko seietan. Handik 24 ordu eta 44 minutura helmugaratu zen, 22. postuan. Printzipioz, "bukatzea" zuen xede. 500 pertsona inguru aritu ziren. 5.000 metrokoa izan zen desnibel positiboa.

Gisa horretako lasterketak Rafa Cabanillas lagunarekin batera egin ohi ditu. Cadizen ere batera irten ziren, baina 50. kilometroan bakarrik geratu zen Mateo, lagunak erretiratu egin behar izan baitzuen, lesio bat tarteko.

"Esperientzia ona izan zen Cadizekoa, eta berria ere bai: kilometro asko egin nituen bakarrik".

Luzera horretako proba bati ekiterakoan, aspektu fisiko eta psikologikoek pisu bera dutela uste du: "%50eko garrantzia du alor bakoitzak, gutxi gorabehera. Gorputzak erantzuten ez badu jai daukazu, hori argi dago, baina azkeneko kilometroetan motibazioak eta bukatzeko gogoek ematen dizute erregea, proba osatzeko indar osagarri hori".

Prestaketa, azarotik

Aurreko urteko azaroan ekin zion Mateok Cadizeko ultratraila prestatzeari. Astero-astero ehun bat kilometro pilatu ditu zangoetan: "Egun batean irten eta hogeik kilometroko saioa egiten badut, ongi; gai-



Mendian gora eta behera aritu ohi da Gorka Mateo; zenbait probatan, egun oso batez.

GORKA MATEO

nontzekoetan iritsiko naiz nik aurreikusitako kopurura".

Herritarra Mungian bizi da orain, eta bertan egiten du lan. Entrenatu ere bai, noski. Sollube mendian aritu ohi da, gora eta behera. Aldatzea gustatzen zaio, dena den: Andatza, Adarra eta Aizkorrin ere ibili ohi da, gabonetan herrira bueltatzen denean.

Mont Blanc-era abuztuan

Beste mendi batean ariko da Mateo abuztuan. Ez nolnahi-

ko batean: Mont Blancen. Frantzia, Italia eta Suitza igeratzen ditu probak: 166 kilometro ditu; 2.300 lasterkari inguru ariko dira.

Preziatuak dira oso dortsalak; lasarteoriatarak izango dira horietako biren jabeak: Gorka Mateo bera eta Javi Olazagoitia. Abuztuaren 26an, ostiralez, ekingo diote erronkari: arratsaldeko seietan hasiko dira.

Proba horretan aritzeko dortsalak zozketa bidez bana-

tzen dira, baina hautagai izateko merituak egin behar izaten dituzte lasterkariak: Mont Blancorako puntuagarriak diren probetan bederatzi puntu bildu behar izaten dituzte gutxienez. Asturiasen, Bartzelonan eta Kanaria Handian lortu ditu beharrezko puntuak Mateok.

Rafa laguna entzun zuen ultratrailaz hizketan, eta aurrenekoan aritu zenetik ez da geratu: "Adiktiboa da mendian lasterka egitea".

BOLA-JOKOA.-

Birlak dantzan Michelinen

Giro ederrean aritu ziren bola-jokalariek Michelinen, martxoaren 13an; birlak dantzan jarri zituzten, goiz eta arratsalde, Lehendakari txapelketako hirugarren jardunaldian. Gipuzkoako Bola eta Toka federazioak antolatzen du lehiaketa hori. Hainbat ikusle gerturatu ziren bolatokia egunean zehar.

Emakumezkoen kategorian emozioa izan zen nagusi: Aitziber Ugalde mutiloarrak irabazi zuen, 42 puntu bilduta. Puntu bakarrera geratu zen Nerea Agirre segurarra, eta bira Olaberriako Ainara Peñagarikano. Laugarren postua Pakea Galdos olaberriarrentzat izan zen: 36 puntu zakuratu zituen.

Gizonezkoen sailkapena honakoa izan zen: Txema Fernandez zarautzara gailendu zen, 48 punturekin. Emozio handiko tirada izan zen hori ere: hurrengo hiru sailka-



Michelingo bolatokian giro ederra izan zen martxoaren 13an.

tuek 46na puntu eskuratu zituzten eta desenpatea jokatzea behar izan zuten. Ereñozuko Antonio Miner izan zen bigarren, Idiazabalgo Andoni Berasategi hirugarren eta Zeraingo Itoitz Alustizarentzat laugarren. Herriko jokalariek ez zuten eduki zorte handirik.

Bi jardunaldi faltan

Lehendakari txapelketa bukatzeko bi tirada geratzen dira: igande honetakoa Legazpin eta apirilaren 3koa Hernanin.

Gipuzkoako Kopa hasiko da gero: lehenengo jardunaldia apirilaren 10ean jokatuko dute, Zarautzen.

DARDOAK.-

Karmele Villena herritarra Gipuzkoako dardo txapelketara sailkatu da, Orion irabazita

Uztailaren 2an Aginagan jokatuko den emakumezkoen Gipuzkoako txapelketako finalera sailkatu da Karmele Villena herritarra. Orioko Blink tabernan jokatutako kanporaketa irabazi ostean eskuratu du zita horretan aritzeko txartela. Probintziako dardolari trebeenekin batera lehiatu zen Villena, orain dela pare bat asteburu.

"Garaipen ederra izan da Oriokoa, oso landua; uztaileko final handian maila ona ematea espero dut", aipatu du Villenak.



TXIRRINDULARITZA.-

Lasarte-Oriako VI. BTT travesia apirilaren 10ean jokatuko da; zabalik dago izena emateko epea

Urtero moduan, travesia zaleek aukera bikaina edukiko dute mendi-bizikletarekin Andatza mendian zehar ibiltzeko. Saiatuz txirrindulari taldeak Lasarte-Oriako VI. BTT proba antolatu du: apirilaren 10ean jokatuko da, 9:30ean. Okendo plazatik irtengo dira parte hartzaileak. Izena emateko interesa dutenek egin dezakete jada, *kirolprobak.com* atarian, 10 edo 12 euroko prezioetan –hautatzen duten ibilbidearen arabera ordaindu beharko dute: 28 kilometrokoa da motza, eta 38koa luzea–.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, apuntatzen diren aurreneko 400ek oparia jasoko dute, "ziur". Bezperan zein 10ean bertan ere ahalko dute izena eman: 18:30etik 20:00etara edota 8:30etik 9:15era, Okendo plazan, 15 edo 17 euroren truke.

Agenda

Osteguna 24-Igandea 27, Lasarte-Oria



Aste Santua Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako eliztarrek Aste Santua ospatuko dute asteburuan. Jesusen bizitzako pasarte ezberdinak gogora ekarriko dituzte hainbat elizkizunetan. Ostiral Santuan Gurutze bideak egingo dira, esate baterako.

Osteguna 24
AMA BRIGITARREN KOMENTUA
18:00etan, Jaunaren afaria gogora ekarriko dute. Elebietan.

ARANTZAZUKO AMA PARROKIA
19:00etan, Jaunaren afaria gogora ekarriko dute. Elebietan.

Ostirala 25
SAN PEDRO PARROKIA
8:00etan, Gurutze bidea Sausta baserri ondoko aldre txikira. Elebietan.

18:00etan, Jesusen nekaldia. Elebietan.

ARANTZAZUKO AMA PARROKIA
10:00etan, Gurutze bidea Azkorterera. Elebietan.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA
11:00etan, Gurutze bidea. Elebietan.
17:00etan, Jesusen nekaldia. Elebietan.

Larunbata 26
AMA BRIGITARREN KOMENTUA
20:00etan, Pazko gaubela. Elebietan.

ARANTZAZUKO AMA PARROKIA
21:00etan, Pazko gaubela. Elebietan.

Igandea 27
SAN PEDRO PARROKIA
10:00etan, Pazko Igandeko elizkizuna. Euskaraz.
13:00etan, Pazko Igandeko elizkizuna. Gaztelaniaz.

ARANTZAZUKO AMA PARROKIA
11:00etan, Pazko Igandeko elizkizuna. Elebitan.
12:00etan, Pazko Igandeko elizkizuna. Gaztelaniaz.

AMA BRIGITARREN KOMENTUA
11:00etan, Pazko Igandeko elizkizuna. Elebietan.

Lasarte-Oria

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Astearte 22, 18:30ean

Irakurle Txokoko lagunek 'Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak' liburua aztertuko dute Josu Martinez idazlearen laguntzaz.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Larunbata 2, 20:00etan
Helduentzako zinea atalean, 'Ave Cesar!' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 3, 19:30ean
Helduentzako zinea atalean, 'Ave Cesar!' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA
Martxo amaiera arte

'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' zikloaren barruan, Gari-koitz Lasa donostiarrak Tindoufeko kanpamentuetan ateratako irudien erakusketa ikusgai dago.



ANTONIO MERCERO ARETOA
Apirila osoa
Ttakun Kultur elkarteko aisia eta gaztea sailek 25 urte hauetan antolatutako hainbat ekintza, hala nola, kanpaldi edo Udako Txokoetako argazkiak ikusgai izango dira.

Pailazoak

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Larunbata 16, 16:30ean eta 19:00etan
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek haien abentura berria eskainiko dute, 'Amalur'. Sarrera, 7 euro. Jalgi Kafe Antzokian eta Artizar tabernan salgai. Irakurle Txokoko lagunek antolatutako ekintza.


Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ostirala 1, 22:00etan
Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean 'Carol' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 3, 17:00etan
Haurrentzako zinea atalean, 'Robot' filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro.

Hemeroteka

Duela 1209 ale



TXINTXARRI aldizkariak 100. alea argitaratu zuen 1998ko martxoaren 27an. Ale berezia izan zen eta 2000. urtearen atarian, Lasarte-Oriaren egoera eta etorkizunari buruzko hausnarketa egin zen.

Ana Urchueguia alkatesaren elkarrizketa, Natxo Izeta orduan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu zuzendariaren eta hainbat alderdien iritzia jaso zen TXINTXARRIK.

Era berean, Lasarte-Oriako egoera aztertzeke langabezia tasa, etxebizitza, herri-izaera, etab. TXINTXARRIK antolatutako mahai inguru batzuen berri ere ematen zen zerbaki honetan. Eta egoera demografikoari eta langabeziari buruzko datuak ere eskaini ziren hainbat grafikori esker.

Gazteen ikuspegia eta herriko elkarteena ere islatzen zuen zerbaki berezi honek.

Sarean

Ttakun kultur elkartearen sare sozialetan



Lasarte-Oriako Ttakun kultur elkarteak bere 25. urteurrena ospatuko du aurten. Ospakizunetara aurreratuz, elkarteak sare sozialetara egin du salto.

Hemendik aurrera, Kultur elkarteko egitasmo ezberdinek KTG, Amaraun Kluba, Gazte Kluba, Solaskide, Udako Txokoak, Kanpaldiak, etab. antolatzen dituzten ikastaro, tailer eta ekintza guztien berri emango du Facebook eta Twitter bidez.

Gainera, beste herrietan edo Euskal Herrian euskalgintzarekin zer ikusia duten beste egitasmoen berri ere emango da hauen bitartez.

Facebook-eko orrialdea Ttakun Kultur Elkartea da eta twitter kontua, berriz, @TtakunKE da.

Alicia Garcia 'Oporrak bakean' egitasmoari harrera familia

"Harremana estutzean, beste kide batzuk etorri daitezzen saiatzen zara"

'Oporrak bakean' egitasmoari esker haur sahararrek kanpamentuak uzten dituzte udan

Nazha, Mrabih, Abdalahi, Hilifa, Saida, Mattu eta Whaba dira iaz 'Oporrak bakean' egitasmoari esker gure herrian izan ziren haurrak. Uda gure artean igarotzen dute, Aljeriako kanpamentuetako bizitza egun batzuz uzten dute haien osasunaren onerako. Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Lagunek aurten ahalegin berezia egin nahi izan dute egitasmoa herritarrei iristeko. Izan ere, 500 bat haurrek oraindik ez dutela kanpamentuetatik ateratzeko aukerarik izan. Hainbat izan dira haur saharar bat hartzeko informazioa eskatu duten herritarrek eta taldeko kideak eskertuak daude izandako erantzunarengatik.

NEREA EIZAGIRRE

Alicia Garcia dugu 'Oporrak Bakean' egitasmoan parte hartzen duen harrera familietako kideetako bat. Kanpamentuetan hiru alditan izan da eta urte hauetan zehar, harreman estua egin du udan hartzen dituen haurren familiarekin. Harekin izan gara, egitasmo hori buruz eta kanpamentuetako bere esperientzia ezagutzeko.

Nola jakin zenuen 'Oporrak Bakean' egitasmoari buruz?

Gu guztiok ume sahararrik ikusten ditugu udaro, gure herrietan, gure inguruan.

2006. urtean umeak hartzeko aukera aurkeztu zitzaizkidan dudarik gabe informazio gehiago jasotzera joan nintzen.

Saharar haurren egoera ezagutzen al zenuen?

Komunikabideen bitartez iristen zen informazioengatik ezagutzen nuen beraien egoera.

Zerk bultzatu zizun saharar haur bat hartzera?

Urtero bide desberdinetatik familiak lortzeko egiten diren laguntza eskaerak entzuten ditugu.

Azkenean, pausoa ez badugu ematen eta geure burua bolondres bezala ez badugu eskaintzen, 'Oporrak Bakean' programak ez luke zentzua izango.

Beharrezkoak dira gero eta bolondres familia gehiago aurkeztea, batere, umeak kanpamentuetatik irten gabe geratzen direlako.

Bi haur saharar hartzen dituzu zuk, zergatik?

Lehen aldiz hartzen duzun, umearen familiarekin harremana estutzen duzunean, familiako beste kideek ere esperientzia hau bizi dezaten ahalegintzen zara eta zure esku dagoena egiten duzu. Horregatik orain 2006 urtean hartu nuen lehen hauraren ilobak datoz.

Harrerako tramiteak egin eta zail egin al zitzaizun itxaronaldia?

Bai, itxaronaldia luzea egiten da, batez ere bere heldueraren aurreko egunetan.

Behin haurrak hona iris-



Alicia Garcia hiru egonaldi egin ditu Saharako kanpamentuetan.

A. GARCIA

tean, zail al da komunikatzea?

Umeek ikastetxeetan gaztelania ikasten dute, irakasgai bat gehiago bezala.

Gainera, programako antolakuntzak hiztegi txiki bat ematen die harrera familiei euskara-gaztelania-hassania hitzekin eta oinarrizko esaldiekin. Errepikatzen duten umeen laguntza ere garrantzitsua da, batez ere hasieran.

Egokitzapena beharrezkoa da haientzat?

Zalantzarik gabe, lehen egunak egokitzapenerako dira, bai umearena eta bai familiarena. Inguruneari, ohiturei dagokionez, kultura, gustuak...

Zer egiten zaie deigarrien hona etortzen?

Atentzio handi sortzen diena

guretzat oso ohikoak diren gauzak dira. Txorrotak edo argien etengailuak bezalako gauzak, garajetako ate automatikoak edo igogailuak ere.

Zer gustatu zaie gehien?
Zalantzarik gabe, gehien gustatzen zaiena igerilekua eta litxarrerriak dira.

Kanpamentuetan izan al zara? Noiz egin zenuen bidaia?

Bai, hiru alditan egon naiz. Lehen bidaia, lehen haurra ekarri nuenean egin nuen. Haurra etorri eta zortzi hilabetetara joan nintzen. Bere familia eta biziera ezagutzeko irrikitan nengoen eta aukera agertu zen neurrian, gogo handiz animatu nintzen.

Haiekin bizi zineten?

Kanpamentuetara bidaiatzen duzunean, hartzen duzun umeen familiarekin etxean hartzen duzu ostatu. Bertan ez dago hotelik, ez pentsiorik, ez kanpik.

Nolako da bizitza?

Oso oinarrizko adobe-etxeetan bizi dira uralita-teilatuekin; familia batzuk etxe hauek haima batekin edo kanpadendarekin osatzen dute.

Sukaldean butanoa erabiltzen da eta ur txorrotarik ez dago.

Bainugelak etxeetatik kanpo kokatutako letrinak dira.

Zer aurkitu dezakezu bertan?

Daira-tan, umeak bizi diren tokietan, haurtzaindegia, ikas-

tetxea eta kontsultategi medikoa bisita daitezke, gehiagorik ez.

Errepide estuan zehar eta ordu bateko distantzira gobernu gune logistikoa Rabouni dago. Nazio-ospitalea, AFAPRADESA-egoitza (Saharako Presoen Senideen Elkartea), gerrako museoa aurkitzen dira bertan eta laguntza humanitarioko biltegiak bisita daitezke...

Zerk harritu zintuen gehien? Zergatik?

Deigarria egin zitzaidan duten gutxiarekin zorionsuak direla eta beti daudela prest daukatena partekatzeko.

Ez dut ondasun materialez hitz egiten bakarrik, kontuan hartu behar da beraien itxaronaldia hamarkadetako dela, nekez, laguntza humanitariotik iristen zaizkien baliabide gehiagorik ez dute. Aisialdian ia aukerarik gabe. Seguraski, beraien egoeran, gutako askok amore emango genuke.

Lankidetzeta, familia, solidaritatea eta batez ere, itxaropen kontzeptuek balore neurtezina dute horrelako egoera batean.

Haiekin harremana mantentzen duzu urtean zehar?

Bai, gaur egun sahararrek sakeleko telefonoa dute, Marokok hartutako lurraldeetan duten familiarekin harremandu ahal izateko.

Nola bizi zuten 2015 urte amaierako uholdea?

Nire familia Aaiun-eko wilyan bizi da eta uholdeek gutxi eragin zuten bertan.

Giza kalterik egon ez arren, kanpamentu guztietan kalte material ugariak egon ziren. Etxeak adobezkoak direla kontuan hartuz, paretak paper bustiak izango balira bezala erortzen ziren; gainera dena lurraren maila berean dagoenez, tresna pertsonal asko eta bildutako elikagai gehienak galdu zituzten.

Zein laguntza mota behar dute?

Gaur, bizi dugun krisialdiagatik, laguntza humanitarioa nahiko murriztu da eta ez da oso anitza.

Beharrezkoa den laguntza politikoa da, zalantzarik gabe, eta Saharako referenduari buruzko Nazio Batuen mandatuak bete daitezela.



Alicia Garcia egun bi haur saharar hartzen ditu udan. Familia bereko kideak dira eta haiekin ere izan da kanpamentuetan. A. GARCIA